

IRAKURKETA-PLANA

Txantiloiak

Aurkibidea

Sarrera	2
Testuingurua: Gure ikastetxea	2
Ikastetxearen ibilbidea, irakurketarekin lotutako proiektuetan:	2
Diagnostikoa: Irakurketa mailan, Leizaran Institutuak dituen indarguneak eta ahuldadeak	3
Jardun-ardatzak:	4
Helburuak	4
Ekintzak/jarduerak (DBH1-2 eta DBH3-4ko koadroak)	5
Ebaluazioa	8
Erabilitako Bibliografia	8

Sarrera

Testuingurua: Gure ikastetxea

Ikastetxeak IES LEIZARAN BHI du izena eta Andoaingo Plazaola 23an dago kokatuta. Publiko eta doakoa da, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko mailak eskaintzen ditu. Bigarren Hezkuntzan D ereduak daukagu. Hala eta guztiz ere, atzerritik etorritako ikasle kopuru garrantzitsua jaso ohi dugu eta honek hizkuntza-errefortzu neurriak hartzea eskatzen digu. Batxilergo Humanistiko eta Zientifikoko modalitateak A eta D ereduetan daukagu. Eta bestetik, Goi Mailako Heziketa Zikloaren (Gizarteratzea) eskaintza ere badugu. Eskaintza osoa (goizez) A eta D ereduetan, eta Eskaintza Partziala (arratsaldean) A eredu bakarrik.

Ikastetxearen ibilbidea, irakurketarekin lotutako proiektuetan:

Eskuartean duzun IRAKURKETA PLAN honek gure ikastetxeko **hainbat egitasmorekin egiten du lotura**, hala nola, Hamaika Esku, Ikastetxeko Urteko Plana, Hizkuntza Proiektua eta Hobekuntza Planarekin.

Azken ebaluazio diagnostikoen emaitzak ikusita, **Hamaika Esku**n parte hartzearen beharra argi zegoen, programak ikastetxeko ikasle profilaria erantzuten diolako. Programak eskaintzen du ikasleen emaitza kaskarrak hobetzeko aukera. Honen haritik, hainbat konpetentzia urgente lantzen hasteko erabakia hartu zen, hauek, hizkuntza konpetentzia eta matematika eta zientzietako konpetentziak, nagusiki, izanik. Hamaika Esku egitasmoan, Irakurketa Plana landu beharreko 3. zutabea da. Bertan, Liburutegiaren erabilera indartu eta irakurriaren ulermena eta irakurzaletasuna sustatzeko helburu ageri dira.

IUPak ere, aurrekoaren inguruan honela dio: “Aurten, Irakurmena-ulermena indartzeko proiektua martxan jarri: Irakurketa plana -Kurtso hasieran, hizkuntza ikasgaietan gaia landu: nola irakurri, abiadura, azpimarraketa nola egin. -DBHko koordinatzailea Lasarteko Berritzegunean antolatutako Hizkuntza Mintegira joango da. -Ikasgai bakoitzean gutxienez hilabete behin, artikulu bat (testu-liburuetatik, eguntarietatik, aldizkarietatik... hartua, idatziz zein ahoz) landu. Hala idatzita gera dadin, programazioetan sartuko da. Irakurketa planaren barruan: Liburutegia izango da, erabiliko dugun irakurketa lantzeko guneetako bat. Iazko ikasturtean liburutegi osoa berritu ondoren, bertan egingo ditugu aurten irakurketari lotutako zenbait saio: ebaluazio bakoitzean irakurriko den liburuaren lehenengo irakurketa partekatua, liburutegian egingo da. Halaber, Erromako turismo gida prestatzeko, azalpen eta deskribapen testuak bertan landuko dira”.

Irakurketa plana egiteko gidak argi eta garbi uzten du **ESKOLA-ELKARTE OSOAK** onartu eta bere egin behar dituela honek jasotzen dituen erabaki guztiak. Honek esan nahi du, denon artean adosten dugu behin betiko irakurketa plana sustatzeko eta egunero gauzatzeko, mintegiek dutela ardura. Zirriborro hau talde txikian landu denez, klaustroan onartu, moldatu edota ontzat ematea da helburu, lehenbailehen martxan jartzeko. Victor Morenoren **ZERTARAKO IDATZI** liburuaren hitzaurrean esaten den moduan “hizkuntza baldin bada arlo guztietako komunikazio-bidea, bistan da irakasle guztiek izan behar dutela irakurketa ikasgelan lantzeko ardura.”

Diagnostikoa: Irakurketa mailan, Leizaran Institutuak dituen indarguneak eta ahuldadeak

Zein puntutan gauden irakurketa dela eta, mintegika burutu den lana da. Zuzendaritzak mintegi bakoitzak irakurketa planaren hausnarketa zenbateraino burutua duen neurtu du. Eta ondorengoak ondorioztatutako hainbat puntu:

		Alde onak	Alde txarrak
Barruko faktoreak	Ikasteko irakurri	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Irakurketa bera bultzatzeko erabakia hartu da ikasketa prozesuari laguntzeko. <input type="checkbox"/> Mintegi bakoitzak dagoeneko egin du irakurriaren ulermena lantzeko testuen aukeraketa. <input type="checkbox"/> Klaustro osoa, hau da, mintegi guztiak norantza berean ari dira IRAKURKETA PLANEAN. 	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Maiztasuna eta denbormalizazioa ez dira oraindik zehaztu, hurrengo ikasturte hasierako klaustroan planteatuko da. <input type="checkbox"/> Adostu behar da egunero lehenbiziko 10 minutuak irakurketari eskainiko zaizkion edota beste uneren batean izango den.
	Irakurtzeko ohitura		
Kanpoko faktoreak	Ikasteko irakurri	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Ikasleen profila ikusita, BIDAIA LITERATURA hartu dugu ardatz, honela Kulturartekotasunaren inguruan lantzen diren helburuei jarraipena eman ahal diegulako. 	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> BIDAIA LITERATURA ardatz izatea guztiz koherentea da lortu nahi diren helburuekin, baina egia da, irakurtzeko aukerak mugatu egiten dituela. Halere, mintegi bakoitzak tarteka ardatza den literatura mota hau osa dezaten erabaki da, tarteka loturak, ezar baldin badaitezke ere. <input type="checkbox"/> Egutegia etengabe osatzen joango da, materialen bilaketa, bilketa eta abar etengabeko prozesua delako. Ezin da hasi dena erabat lotura dugula.
	Irakurtzeko ohitura	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Egutegi bat ezarri da irakurtzeko mailaz-maila zehaztutakoa. Ohitura lantzeko jarduera, material eta ekintza desberdinekin (ikus jarduera-koadroa) . 	

Jardun-ardatzak:

Diagnostikoaren emaitzetan oinarrituta eta gure ikastetxearen premia nagusiak antzemanda honako jardun-ardatz hauekin lotutako ekintzak landuko ditugu:

1- **Hilero ikasgai bakoitzeko testu bat** landu emandakoarekin lotura duena (testu liburutik apartekoa), edo aktualitatearekin zerikusia duena, eta irakurketaz gozatzeko helburua duena. ;Maiatzaren 20 baino lehen hauen bilduma egingo dugu. Beraz, 12 testu gaiko, eta gutxienez bat.

2-Hizkuntza mintegiak urtean behin **IRAKURKETA MARATOIA** antolatuko du, eskola-elkarte osoak parte har dezan. Irakurketaren garrantzia mezu moduan luzatuko die inplikaturako guztiei edozein aitzakipean. Webgunetik irakurketarekin loturik dauden jardueri egiten joango gara etengabe, baina hito hau urteko finkoa izan daiteke.

3-Hizkuntza mintegiak **hiruhilero irakurketa saio bat egingo du liburutegian**, ondoren testuei dagokien tertulia planteatuta. Izan ere, Juan Matak defendatzen duen moduan: "La soldadura de las actividades que preceden y las que prolongan la lectura constituye el fundamento de la animación...El acercamiento distendido y dichoso a los libros generan interés hacia ellos y hacia su mejor comprensión."

4-Jarduera arduradunak ondorengoak dira: mintegiburuak eta Irakurketa koordinatzaileak berrantolatuta dute mintegi guztien inplikazioa, eta ondorioz, klaustroarena. Batez ere, testuen lanketarako sistematizazio, eta era berean, denboralizazioa kudeatuko dute oreka egon dadin.

Helburuak

Hemen proposatzen diren planaren helburuak, talde txikian landutakoak dira, beraz, klaustroak esan behar du hau egingarria iruditzen zaion, eta ondorioz, burubelari lan egin nahi duen modu honetan, edo zein diren gehitu nahi dituen aldaketa, gehiketa, ñabardurak...

HELBURUAK:

1-Erakargarri irakurriz irakurzaletasuna sustatzea. Beste batzuei irakurriz, garrantzizko sentitu. Nor sentitu. Ondo irakurrita autoestima landu.

2-Irakurketa testuak sistematikoki (gaiko hilean 1x10 gai= 10 gai hilean) landuz irakurtzeko kompetentzia hobetzea.

3-Liburutegia irakurketarako erabiltzeko jarduera egutegia zehaztuz, liburuekiko kontaktuaz gozatzea.

4-Irakurketa plazerarekin lotzea. Interesatzen zaizkigun gaiekin: lagunak, familia, zorientasuna, ondo pasatzea, sexua...Eztabaidatzeko, hitz egiteko, partekatze gune, aitzakia izango da betiere irakurketa.

Ekintzak/jarduerak

Hainbat ekintza/jarduera prestatu ditugu, helburu horietako bakoitza lantzeko. Hemen dituzue zehaztuta Planaren lehenbiziko urterako, 2019-2020 ikasturterako, programatu ditugun ekintzak. Kasu bakoitzean, zehaztuta daukagu zein izango den arduraduna, zenbat iraungo duen, zer baliabide eta adierazle erabiliko diren jarraipena egiteko eta nola ebaluatuko diren.

Ezer baino lehen, hona hemen jarduera guztiak lantzeko txantiloia (denok modu berean lan ditzagun)

Jardueraren justifikazioa:				
Helburua:				
Taldeak:				
Erabiliko den materiala eta informazio iturria:				
Irakasleak:				
Jarduerari eskainiko zaion denbora:				
	Zein neurritan bete da?	Eragingarria izan da?	Alderdi azpimarragarriak	Hobetu beharrekoak
1.Jarduera				
2.Jarduera				
3.Jarduera				

Bidaietako literatura 2018-2019 | Euskara Mintegia

DBH1 eta DBH2

Jarduera	Nola gauzatu	Denboralizazioa	Non
Filma	Jarduera hauek identifikatuko dituen sintonia entzungo dute ikasleek jarduerak lantzen ditugun bakoitzean. <i>Munduari begiratzeke...</i> https://www.youtube.com/watch?v=zmyAHizDl0 Pelikulak: Asterix eta Obelix; Tintin;	Hilabete bakoitzean jarduera bat eramango dugu aurrera. Otsaila	Klasean/liburutegia -Klasean. -Liburutegian.
Kanta	<i>Mazisi Okeita</i> Denbelg: DBH2 https://www.youtube.com/watch?v=G9xClqUs3V8 Martizianoak bezala: DBH1 https://www.youtube.com/watch?v=juuXPwCDfks	Martxoa	-Liburutegian.
Entzungaiak	<i>Couchsurfing.a.</i>		
Audioa	Etzegiroan.eus http://etzegiroan.eus/eu/audioak/literatura-euskaraz <i>Xerezade.org</i> http://xerezade.org/ Joanes Aranguren, (Lanketa Liburutegia karpetan) https://www.eitb.eus/eu/irratia/euskadi-irratia/programak/amaraua/audioak/osoar/2627248/joanes-aranguren-euskadi-irratia/	Martxoa	Liburutegian
Bidaiekin lotutako pasartea Ipuina	<i>Bhutan</i> , Bidaia kaiera, Kirmen Uribe "Marco Polo nafarra" irakurgai. <i>Eragin</i> 2 liburutik (68-69 orr.) "Bidaizeko modu berrien bila" irakurgai. <i>Eragin</i> 2 liburutik (84 orr.) "Narratiba 1: bidaia eta abenturak". <i>Eragin</i> 2 literatura (121-122 orr.) <i>Trena</i> , kolore horia, Jon Arretxe, <i>Zazpi kolore</i> liburutik <i>Iribareak</i> , kolore urdina, Jon Arretxe, <i>Zazpi kolore</i> liburutik <i>Bagdadeko morroia</i> , B. Atxaga Dekalogo	Maiatza	Liburutegian
Liburu: Biografia	<i>Alfzor Uharrea</i> , <i>Beti iparralderantz</i> DBH1 <i>Munduari itzulita 80 egunetan</i> , DBH2	Martxotik aurrera	Liburutegian
Irakurketa Deklamazioa	DBH1/DBH2: ikasle bakoitzak edota ikasleek binaka poema baten bozgorrika irakurketa prestatuko du. Irakurketa publikoa egingo dute ikasleek areto nagusian. Dekalogo	Apirila	Areto Nagusian
Bitakora-kaiera	Jarduera bakoitzaren ostean, ikasleek beren impresio, emozio, sententzio, ohar eta orotarikoak jasoko dituen koademoa izango da bitakora-kaiera	Ikasturte osoan zehar	

Esperientzia pedagogikoaren balorazioa egingo dugu, **drive.n**, ikasleekin partekatuko dugun galdetegi baten bitartez, ekainean, planarekin bukatutakoan.

Bidaietako literatura 2018-2019

Euskara Mintegia

DBH3 eta DBH4

Jarduera	Nola gauzatu	Denboralizazioa	Non
Filma	Jarduera hauek identifikatuko dituen sintonia entzungo dute ikasleek jarduerak lantzen ditugun bakoitzean. <i>Munduari begiratzeko</i> https://www.youtube.com/watch?v=zmyAHizDl0 Pelikulak: Asterix eta Obelix; Tintin; <i>Kon-Tiki</i> ; <i>Seda</i> (euskaraz liburutegian badago)	Hilabete bakoitzean jarduera bat eramango dugu aurrera. Otsaila	Klasean/liburutegia -Klasean. -Liburutegian.
Kanta	<i>Mazisi Okeita</i> Denbele: DBH4 https://www.youtube.com/watch?v=G9xCigUs3V8 <i>Martizianoak</i> bezala: DBH3, DBH4 https://www.youtube.com/watch?v=jjuXPwCDfKs	Martxoa	-Liburutegian.
Audioa	<i>Etzegiroan.eus</i> http://etzegiroan.eus/eu/audioak/literatura-euskaraz http://etzegiroan.eus/eu/audioak/literatura-euskaraz/hariak <i>Xerezade.org</i> http://xerezade.org/	Martxoa	Liburutegian
Bidaiekin lotutako pasartea	<i>Bhutan</i> , Bidaia kaiera, Kirmen Uribe <i>Trena</i> , kolore horia, Jon Arretxe, <i>Zazpi kolore</i> liburutik Dekalogo	Maiatza	Liburutegian
Liburua, Autorearen biografia	<i>Robinson Crusoe</i> DBH3	Martxoetik aurrera	Liburutegian
Irakurketa Deklamazioa	DBH3/DBH4: ikasle bakoitzak edota ikasleek binaka poema baten <i>bozgorak</i> o irakurketa prestatuko du. Irakurketa publikoa egingo dute ikasleek areto nagusian. <i>Aiku</i> irakurketa; Ana <i>Urkiza</i> , Juan <i>Kruza Igerabide</i> , <i>Maitasun poemak hasibermentzat</i>	Apirila	Areto Nagusian
Bitakora-kaiera	Dekalogo Jarduera bakoitzaren ostean, ikasleek beren inpresio, emozio, sententzio, ohar eta orotarikoak jasoko dituen koedemoa izango da bitakora-kaiera	Ikasturte osoan zehar	

E-ferentzia pedagogikoaren balorazioa egingo dugu, *drive-n*, ikasleekin partekatuko dugun galdetegi baten bitartez, ekainean, planarekin bukatutakoan.

Ebaluazioa

Irakurketa Plana fase guztietan ebaluatzen joango da, jarduerak moldatu beharrez aurkitzen bagara hala egiteko. Jardueren inplementazio epea amaitzen denean, azken ebaluazioa egingo dugu, lortutako betetze-maila neurtzeko. Ebaluazioan inplikaturako eragile guztien iritzia jasoko da: familia, irakasle, eta ikasle.

PLANAREN GARAPENAREN EBALUAZIOA (2019-2020 IKASTURTEA)

Jarduera-ardatza	Helburua	Ekintza	BETETZE-MAILA ETA BALORAZIOA	HOBETZEKO PROPOSAMENA
1. Ikasteko irakurri	1.1. Erakargarri irakurri irakurzaletasuna sustatzea.	1.1.1. Hiruleroko irakurketa saio partekatua liburategian	<ul style="list-style-type: none"> Interes handia azaldu du prestaketan. Interesa badu, baina ez gehiegi. Ez du batere interesik azaldu. 	Hautetako saioen bat errepikatzea jendaurrean, zahar-etxean, aukeran.
	1.2. Testuak gai guztietan sistematikoki landuz irakurtzeko konpetentzia hobetzea	1.2.1. Egunero 10'ko irakurketa saioarekin eguna hastea (mintegiekin zehaztutako testuekin)	<ul style="list-style-type: none"> Gustukoa du eguna hala hastea. Testuekin aritzea estimatzen du. Ez du batere gogoko testuak irakurtzen hastea. 	
	1.3. Liburuekiko kontaktua mantentzeko jarduerak urte osoko egutegia ezartzea, besteak beste, irakurketa plazerarekin lotzeko.	1.3.1. IRAKURKETA MARATOIA (ikus jarduera koadroa)	<ul style="list-style-type: none"> Besteen aurrean irakurtzea gustuko du. Gustora aritzen da baina nahiago ditu bestelako jarduerak. Lotsa ematen dio besteen aurrean irakurtzeak eta ez du irakurri nahi. 	Antolaketa ikastetxeko areto nagusian izan partez, BASTEROn egitea, udalarekin koordinatuz eta herriko jendea gonbidatuz.
2. Irakurtzeko ohitura	2.1. Liburu berrien inguruan informazioa emanez, hauekiko jakinmina piztea.	2.1.1. Klaseetan irakasleen aholkularitza tarteta astero zabalduko da.	<ul style="list-style-type: none"> Tarte hau asko baloratzen du. Jarraipena egiten dio baina aparteko interesik gabe. Ez zaio axola nobedadeen berri ematea. 	Bi hilabetetik behin, nobedade informazio hori Elkarreko arduradunen bat ematera ekarri edo idazleren bat.
	2.2. Interesa duten bestelako pertsonekin arituz, eta irakurketa- jardun bereziak jorratuz, autoestima lantzea.	2.2.1. Irakurketa Kluba	<ul style="list-style-type: none"> Klubaren abantailak gogoko ditu. Bertan dago jende gehiagorekin egoteko. Ez du ezer jakin nahi honezaz. 	Abantailak tarteka hobetzen joan.

Erabilitako Bibliografia

-Euskal Idazleen Elkarte. *Zer egin dezake nire ikasle batek liburu batekin?*

-Juan Mata. *10 Ideas clave para incentivar la lectura.*

-V́ctor Moreno. *Ikasleak irakurzaletzen ahotsa, sentimendua eta sormena erabiliz* (Nafarroako Gobernua, 2007).

-Jose Antonio Marina; María de V́lgoma. *La Magia de Leer.*

-Fran Nuño. *Manual de Técnicas de Animación a la Lectura* (Berenice, Manuales).

-Victor Villoria. *El mejor corto del mundo para fomentar la lectura*. (15')

<https://www.bing.com/videos/search?q=victor+villoria+&&view=detail&mid=20A6AC7838CFD3ACE3E720A6AC7838CFD3ACE3E7&&FORM=VRDGAR>

-Hautatzen.net bloga.

Heziberrik behin eta berriro azpimarratzen du IKASLEAK PERTSONA OSO izateko bidea egin behar dutela Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ere. Hori lortze aldera, irakurketa ezinbesteko tresna da. Gogora ekarriko dugu bukatzeko aspaldiko esaldi famatuarena: ***“Irakurri eta zure bizitzaren gidaria izango zara, ez irakurri eta baten bat izango duzu gidari bizitzan.”***